



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 5/2018 ebazpena

Recurso 12/2018 errekurtoa

KABIA foru organismo autonomoak onartutako Azkoitiko adineko pertsonentzako egoitza zentroan egoitza, psikogieria, eguneko zentro eta tutoretzapeko etxebizitza zerbitzu kontratuaren agirien aurka (1GBE0727/2018 espedientea) AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK aurkeztu duen kontratazio alorreko errekurto berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2018ko irailaren 21eko saioan, goian adierazitako kideak bertan zirela, honako erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato de “servicios de residencia, psicogeriatría, centro de día y apartamentos tutelados en el centro residencial para personas mayores de Azkoitia”, aprobados por el Organismo Autónomo Foral KABIA (expediente 1GBE0727/2018), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 21 de septiembre de 2018, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2018ko abuztuaren 29an, ebazpen honen goiburuan aipaturiko errekurtoa jartzeko idazkia sartu zen Auzitegiko erregistroan, eta bertan, eskaera atalean eskatu zen deuseztatzeko kontratuaren ezaugarri teknikoen agiriko X eta XI. atalak, eta argitaratu zedila beste agiri bat, ezarriko zuena desgaituen begirale-hezitzaile izateko ezinbestekoa dela gizarteratzeko goi mailako teknikari titulu ofiziala edo errekurtoan aipaturiko baliokideak izatea.

BIGARRENA.- Errekurtsoa jakinarazi eta horretarako errekerimendua egin ondoren, irailaren 13an, kontratazio organoaren txostena jaso zen, non eskatzen baita ez onartzeko errekurtoa epez kanpo aurkeztu zelako.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- El 29 de agosto de 2018 tuvo entrada en el registro del Tribunal el escrito de interposición del recurso mencionado en el encabezamiento de esta resolución, en cuyo suplico se solicita que se anulen los apartados X y XI del pliego de prescripciones técnicas del contrato y se vuelva a publicar un nuevo pliego de prescripciones técnicas que delimite que para la ocupación de monitor-educador de personas con discapacidad sea imprescindible estar en posesión del título oficial de técnico superior en integración social o los equivalentes mencionados en el recurso.

SEGUNDO.- Previo traslado del recurso y requerimiento formulado al efecto, el 13 de septiembre se recibió el informe del órgano de contratación, en el que se solicita la inadmisión del recurso por haber sido presentado fuera de plazo.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtso berezia jarri da zerbitzu kontratu baten baldintza agiriaren aurka zeinaren balio zenbatetsia (10.018.591,24 euro) ehun mila eurotik gorakoa den.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke aurkaratutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 44. artikuluko 1.a) eta 2.a) ataletan. Errekurtso horren ardura Auzitegi honen eskumena da, 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 2.1 artikuluan emandako ahalmenaren arabera.

Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agiriaren kontratuaren xedarekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarteak delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defenditzen dituelako.

BIGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 50.1.b) artikuluan xedatzen du baldintza agiriaren aurkako errekurtsoa jartzeko, idatzi bat aurkeztu beharko dela lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun balioduneko epean, betiere interesdunei jakinarazi bazaie nola eskuratu ditzaketen agiriak.

Kasu honetan, lizitazio iragarkia KABIaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman, ez abuztuaren 7an, errekurtsoan oker dioten bezala, baizik eta abuztuaren 6an; eta egun horretan bertan agiriak interesdunen eskura zeuden kontratatzailearen profilean. Hortaz, errekurtsoa aurkezteko epea abuztuaren 28an amaitzen zen.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado (10.018.591,24 euros) es superior a cien mil euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP). Y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

SEGUNDO.- El artículo 50.1.b) LCSP dispone que el procedimiento de recurso contra el contenido de los pliegos se iniciará mediante escrito que deberá presentarse en el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que se haya publicado en el perfil de contratante el anuncio de licitación, siempre que en este se haya indicado la forma en que los interesados pueden acceder a ellos.

En este caso el anuncio de licitación se publicó en el perfil de contratante de KABIA, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, no el 7 de agosto de 2018 como erróneamente se afirma en el recurso, sino el 6 de agosto, y ese mismo día, el 6 de agosto, los pliegos estaban disponibles para los interesados en el propio perfil de contratante. Por consiguiente, el plazo para interponer el recurso terminaba el 28 de agosto.



Errekurtsoa abuztuaren 29an aurkeztu zen, hau da, legez ezarritako epea bukatu ondoren, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 55 d) artikuluan xedatutakoari jarraituz, ez da onartuko.

HIRUGARRENA.- Errekurtsoan ez dugu antzeman, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Auzitegi hau errekurtsogileari isuna jartzera bultza lezakeen fede txar edo ausarkeriarik.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ez onartzea AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

El recurso fue presentado el 29 de agosto, esto es, una vez finalizado el plazo legal, por lo que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 55 d) LCSP, procede declarar su inadmisión.

TERCERO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS).

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2018ko irailaren 21a / San Sebastián, 21 de septiembre de 2018.